

## **Donostiako Liburutegi Nagusia «Txillardegi Liburutegia» izendatzeko atxikimendu bila**

Udalak Donostiako Liburutegi Nagusia Jose Luis Alvarez Enparantzaren omenez «Txillardegi Liburutegia» izendatu dezala eskatu zuten pasa den urriaren 10ean hiriko hamazazpi idazlek, horien artean Fito Rodriguez, Ramon Agirre, Harkaitz Cano eta Arantxa Urretabizkaia, besteak beste. Euskararen Egunaren bezperan, ekimena herritarrei zabaldu nahi dietela iragarri zuten atzo ekimenaren bultzatzaileek, eta, horretarako, atxikimenduak biltzeko webgunea sortu dute honako helbidean: [www.change.org/peticiones/donostiako-udalbatzari-euskararen-eremuan-egun-zuen-lan-izugarriaren-onarpen-gisa-txillardegi-izena-jartzea-donostiako-liburutegi-nagusiari](http://www.change.org/peticiones/donostiako-udalbatzari-euskararen-eremuan-egun-zuen-lan-izugarriaren-onarpen-gisa-txillardegi-izena-jartzea-donostiako-liburutegi-nagusiari). Orain bi egun eskas kanpaina martxan jarri ostean, 250 atxikimendu jaso ditu dagoeneko eskariak. Pasa den azaroan Donostia Kulturak erabaki behar zuen Liburutegi Nagusiari izena aldatu eta «Txillardegi Liburutegia» bezala bataiatzea, baina, azkenean, abendura arte atzeratu zen erabakia PSOEk hiriko eraikin kulturalak izendatzeko irizpide orokor batzuk finkatu behar direla argudiatu baitzuen. Txillardegiri Hiritar Merezimendu Domina eman zitzaion kontsentsu handi batez, beraz, ekimen honen bultzatzaileen aburuz, euskara eta hiriaren alde egin zuen lan eskergaren aitortza horretan urrats berri bat egin beharko luke orain Udalak. Txillardegiren ibilbide politikoa, baina, ez da antza guztien gustuko. Txillardegiren biografia idatzi zuen Fito Rodriguez idazle eta ikerlariarentzat, euskaldunentzat Txillardegi ondare handia den bitartean, erdaldunentzat, ezjakintasuna dela medio, «ez hainbeste». Txillardegik euskarari eta hiriari hainbeste eman zenez, pertsonaia «bere osotasunean» begira dezatela eskatu zuen Rodriguezek. «Jose Maria Urquijok Diputazioan areto bat du, eta karlista zen; Koldo Mitxelena, alderdi bateko partaidea zen, baita Carlos Santamaria edo Ignacio Maria de Barriola», aipatu zuen Donostiako idazleak.

«Txillardegik ere bere ideiak zituen... eta zer?», gaineratu zuen Rodriguezek. Dani Goñi Batera elkarteko lehendakariak -Txillardegi bera izan zen elkartearen fundatzailea-, eskaera sinatzeko deia egin zien donostiar guztiei.